

Funtsezko jarduerak

·Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

UrMax-en funtsezko jarduera pertsonok dutxan ematen dugun denbora optimizatzea da. Honekin batera ingurumenaren eta aurrezpenaren arazoak lantzen ditu, eta horrez gain, dutxan ematen dugun denbora musikaren bidez hobetzen du.

Proiektua martxan jartzeko, funtsezkoa da hornitzaile aukeraketa egokia egitea. Horretarako, merkatuko ikerketa sakon bat egin beharko litzateke jakiteko zeintzuk diren aukera egokienak gure produktua osatzeko.

Aurreko hau beharrezkoa da gehien bat gure produktuak hainbat atalen lotura delako. Gu arduratuko ginateke zati txiki horiek batzeaz eta horiekin produktu bakarra sortzeaz: UrMax.

Gainera UrMax-en oso abantaila garrantzitsu bat da erosleak aukera dezakeela beren diseinua eta tamaina, hau da, gure web orrian aukera emango diegu, hainbat modeloren artean. Beste aukera bat euren UrMax produktu pertsonalizatua sortzea izango da. Ez hori bakarrik, txikientzat beraien marrazki bizidunetako pertsonaia gustukoeneren diseinua ere edukiko dute aukera bezala (Mickey Mouse, Frozen, Cars, Pepa Pig...).